

Alfabeto bat

Karlos Linazasororen munduaz

Ez balego beste mundurik,

Karlos Linazasoro (Alberdania 2000)

Ibon Egaña Etxeberria
Euskal Filologiako ikaslea

Gaur egungo euskal narratiban oso bide berezia, desberdina ari da lantzen Karlos Linazasoro tolosarraren literaturgintza. Narraziogintzan nagusi diren ildoetatik aldenduz, errealitatea eta fantasia nahasten dituen literatura bat da berea, Borges edo Cortázarren ekarpenak bere egin eta haiek eguneratzen, bere estilo propiora ekartzen asmatu duena, beti ere Kafka eta absurdoaren literatura oso presente dituela. Artikulu honek merezi adinako arretarik bereganatu ez duen idazle baten obrarako lehen hurbilpen bat izan nahi du. Hiztegi edo alfabeto eran itxuratuta, Linazasororen *Ez balego beste mundurik* narrazio-bildumaren irakurketa proposamen bat dira orrialde hauek.

The writings of Karlos Linazasoro have developed in quite an unusual and special way in present Basque literature. His writings, which are influenced by Borges and Cortázar have succeeded in mixing reality and fantasy, never forgetting Kafka and the literature of the absurd. This article is intended to be an introduction to the work of a writer who has to date not received the attention that he has merited. By way of the alphabet, the article attempts to encourage the reader to explore Linazasoro's collection of stories *Ez balego beste mundurik* ('If there was no other world').

Lan hau osatzekotan ari ginela, *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan* liburua hartu dugu esku artean. Hitzaurrea zabaldu eta honatx zer irakurri dugun:

Literatura ezer baldin bada, akademiak ezin ehiza dezakeen piztia baita, besteak beste. Bizipenetatik elikatzen den kea da literatura, hizkuntza duena artelanerako gai eta, aldi berean, tresna nagusi eta helburu (Etxeberria, 2002).

Lehendik ere bagenuen kezka areagotu digu Etxeberriak, izan ere, literatura osoa piztia harrapaezina bada, benetan piztia bitxia eta harrapagaitza da Linazasororena, gure literaturako joera nagusietatik aldentzen dena. Jaime Alazraki-k zioen ezinezkoa dela Cortázarren ipuinak itzultzea, fantasiatik kode errealista batera ekartzea. Linazasororen ipuinak itzultzea ere haiek itzaltzea litzateke, eta horregatik ez gara ahaleginduko hemen haiek interpretatzen. Piztiaren gaineko zertzelada batzuk ematera mugatuko da gure lana. Sarera ke apur bat biltzea lortuko bagenu, gu pozik.

Piztiaren bitxitasunak hartaratuta eta, zergatik ukatu, originaltasun nahi batek eraginda hartu du lantxo honek alfabeto-itxura. Baina berehala ohartu gara ez gara izan ez lehenak, ezta originalak ere. Andu Lertxundik *Ez balego beste mundurik* liburuaren aurkezpenean bertan irakurritako "Hiztegi-gida laburra Karlos Linazasororen eremuetan ibiltzeko" hitzaldiarekin zorretan dago artikulua hau.

Absurdoa

Karlos Linazasororen narraziogintza hizpide denean, absurdoa aipatu ohi da bere literaturaren ezaugarri garrantzizkoena eta behinena bezala. *Ez balego beste mundurik* liburuak jasotako kritiketan ere behin eta berriz aipatzen da absurdoa: «Absurdoaren bidea omen du gustuko Linazasorok eta Kafkaren errainua ez da gustuko platera gure artean» (Kortazar, 2001). Liburu honetan ez ezik, gainerako ipuin-liburuetan ere absurdoa da bere literatura ulertzeko gako nagusietako bat. Liburu honekin batera trilogia osatzen duten *Zer gerta ere* eta *Ipuin erotikoak* bildumek ere absurdoa dute oinarri. *Ipuin erotikoak* liburuan «irakurlea absurdoaren munduarekin jarri nahi du aurrez aurre», zioen Javier Rojok (2001) eta gauza bera esan dezakegu liburu honetaz ere. Baina zer esan nahi dugu absurdoa aipatzean? Hiztegi ortodoxo batera jotzen badugu absurdoa «adimen-legeen kontrako ekintza edo esana, zentzugabekeria» dela irakurriko dugu. Linazasororen hiztegian absurdoak zer esanahi duen Javier Rojok (*op. cit*) azalduko digu hobekien: «itxuraz arrunta dirudien egoera batean elementu arrotz bat, egoera horrekin zerikusi bat bera ere ez duena, sartzen da: pertsonaiek, ordea, ez dute elementu horren arrotz-tasunaren kontzientziarik».

Liburura etorri, har dezagun, esaterako, lehenengo narrazioa, *Demagun kripta bat* deritzana. Bertan, egoera erabat arrunta da hasieran aurkezten zaiguna. (Oraingoz alde batera utziko dugu kokagunea kripta bat izatea eta bere ondorioak): «Demagun kripta bat. Demagun kripta horretan bi liburu aurkezten direla, bi idazle sonaturen liburu bana: bata J.K. Molineroren poema-liburua, eta bestea K.L. idazle gaztearen ipuin-bilduma» (7. or.).

Liburu-aurkezpen erabat arrunt eta ohikoa da aurkezten zaiguna. Berehala sartzen du, ordea, idazleak ordena eta oreka apurtzera datorren elementua:

«Hitzaldiaren erdi-partera-edo, agure bat aulkitik altxatu da, nahikoa zalaparta eginez» (10. or.).

Hasteko, ohartzen gara agureak ez duela inongo arrazoirik altxatzeko, edo behintzat ez zaigu arrazoi hori ezagutzera ematen. Horrez gain, berehala ematen da aditzera hala ate nagusia nola larrialdietarako irteera itxita daudela, ez dagoela ez barne-telefonik eta ezta leihorik ere. Bat-batean, itxita, irten ezinik eta inkomunikatuta daude kripa barruko pertsonaiak. Baina egoera hori ez da beste pertsonaia batek sortua. Ipuin honetako pertsonaiak ez dira gertatzen ari denaz jabetzen, baina ez inork informazioa ukatzen dielako, berez egoerak zentzurik ez delako baizik. Horregatik da absurdoa, hain zuzen, inork kontrolatzen ez duen egoera delako; pertsonaia guztiak dira maila berean egoeraren biktimak. Egoera absurdoa aurkeztuta, Linazasorok pertsonaiek egoera horren aurrean hartzen duten jarrera aztertu eta esploratu nahi du bereziki. Egoeren aurrean pertsonaiek zein galdera-erantzun ematen dituzten aztertzen du: «Batzuek, egoeraren aurrean, irribarre egiten dute ezkutuan, egoera, ongi pentsatuta, irrigarria baita zeharo; baina hasieran laguntzeko gogoia handiagoa da irribarrerakoa baino» (10. or.).

Logikaz kanpoko jarrera irrazionalak dira pertsonaiek egoeraren aurrean hartu ohi dituztenak. Egoeraren neurrikoak, nolabait. Aipagarria da ipuin honetan bertan, egoeraren aurrean, poetak hartzen duen jarrera: hilzorian dagoen agureagana hurreratu eta poema errezitatzen dio. Horren ostean, galdera egiten du poetak: «Gaur osteguna da, udazkenean gaude, bi liburu aurkezten dira, munduak aurrera darrai eta ez daukat goserik oraindik. Zer dela-eta orduan kezkatu?» (11. or.).

Egoera zentzugabea onartzeko joera nagusitzen da pertsonaien artean. Hala ere, arrazoiak bilatzeari ekiten diote: «arrazoi politikoak aipatu dira, arrazoi soziologikoak, arrazoi etiko erlijiosoak...» (12. or.). Alferrikako bilaketa izango da, ordea, pertsonaia, egoera bera zentzugabea baita. Bilatzen diren arrazoiak ere kontsolamendu modukoak dira, zentzugabeak, nolabait. Pertsonaiek lasaitasuna bilatzen dute arrazoiak bilatuz, nahiz eta inolako zentzurik ez izan. Ez dute egia bilatzen, sosegua emango dien azalpen bat baizik. Garbi esaten du *4. moilan* narrazioaren pasarte batek: «axaleko arrazoiaren batekin lasaituko luke norberak bere burua segur aski» (50. or.). Egia, arrazoiak, hipotesi sinesgarriena baino ez da ipuinotan.

Bagoi bat ordokian narrazioak ere absurdo-dosi handia du. Hasieratik bertatik argi uzten da pertsonaien jokaera irrazionala: «Ikuskatzaileak bosgarren aldiz txulatu zizkigun txartelak» (25. or.). Ipuineko narratzaileak, bestalde, torturatu egiten ditu treneko bidaiariak, inolako justifikaziorik gabe: «gerrikoa kendu eta hogeita hamar edo berrogei bat aldiz astindu nuen» (30. or.). Narrazioak aurrera egin ahala, zentzugabekeria mugara eramaten du Linazasorok: bidaiariak panpinak direla jabetuko da narratzailea, tren-bidaiak zentzurik ez duela eta trena inora ez doala konturatuko da.

Egoera eta jokaera absurdoak, dena den, nonahi aurkitzen ditu irakurleak: futboleak baloirik gabe jokatzen dute *Onuzkirekin futboleak* narrazioan. *Laborrizko garrasiak nire gibelean* ipuinean, garbi agertzen da arrazionalismoaren eta absurdoaren arteko kontrastea: «Larruzko maletatxoak eskuratu nuen azkenik, ezer ez eramateko erabiltzen nuena. Igogailuari deitu, eta oinez jaitsi nintzen» (87. or.).

Literatura absurdoan ohikoa denez, objektuak alienatuta agertzen dira pasarte honetan. Berez ez dagokien funtzioa hartzen dute gauzek. Zentzugabetasuna agerikoago izan dadin, bata bestearen ondoan ematen ditu Linazasorok jokaera absurdoaren adierazgarriak.

Honezkero hasi zaigu idazle txekiar handi bat lekua eskatzen, baina, hiztegiaren eskakizunak derrigortuta, K letrara arte itxaron beharko du.

Amaiera

Alfabetoaren kapritxoek dakarkigute amaiera hiztegitxo honen hasierara.

Giro etsipengarria eta iluna duten ipuin hauen amaieran, Linazasorok irekita utzi ohi ditu ateak eta leihoak. Itxi gabe amaitu ohi dira liburu honetako ipuinak. Ez da azalpen logikorik ematen, ez da ipuinaren korapiloa (halakorik baldin badute) askatzen. Ipuin-liburu honetan, beraz, amaierak ez dira azterketa tradizionaletan *desenlace* deitzen den horren parekoak. Liburuari, ipuinari hegan egiten uzten dio, kate motzean lotu gabe, irakurleari interpretaziorako, gogoetarako tarte zabala utziz.

Galdera erretorikoaz amaitzen da, esaterako lehenengo kontakizuna, *Demagun kripta bat*. Ipuinaren amaieran, bat-batean ateak ireki egiten dira, eta hain desiratutako askatasuna eskura dutelarik, galderak baino ez zaizkie sortzen pertsonaiei: «Non dira senideak eta lagunak? Nola esaten ote diote orain amodioari? Nor ausartuko da atea igarotzera?» (16. or.). Ipuina amaituta, irakurleak ez daki protagonistak baino gehiago. Ez du jakin ordura arte zer dela eta egon diren zarraturik, ezta bat-batean aske geratzea zerk eragin duen, ez kriptatik kanpo zer gertatu den ere. Egoera absurdo bat azaldu da liburu-hasieran, eta amaierara iritsita, irakurleak ez ditu galderak baizik topatzen.

Hurrengo narrazioak ere galdera bat du amaiera gisa. *Irratia piztu dut* ipuina (hala dei badakioke, baina ez zaigu hoberik begitانتzen), auto-ilara motel batean doan gidari baten bakarriketa da, zeina, bat-batean, berehalako arrisku batez jabetzen baita. Aurrestitutako arriskuaren aurrean, galderak ageri dira amaiera gisa: «Zer egin hil edo biziko zalantza izugarri honen tenorean, ziur badakit zeruak ezingo diola luzaroan eutsi zama astun honi?» (18. or.). Galdera honekin amaitzen da kontakizuna; ekintzarik batere gabeko ipuina da emaitza. Ekintzarik egin aurretik, erabakirik hartu aurretik egindako gogoeta da *Irratia piztu dut*, egonezin une baten harrapaketa eta, neurri horretan, amaierarik ez duen bezala hasierarik ere ez duela esan genezake (narratiboki, uler bedi).

Hirugarren narrazioaren amaierak Beckett-en *Godoten esperoan* ekarriko digu gogora: «...garaipena ekarriko dien parusiaren zain gelditzen dira, noizbait baletor» (20. or.). Formaz galderarik ez badugu ere, zalantza bat, hipotesi bat da amaiera hau ere. Bukaeraren zain geratzen dira protagonistak, nolabait.

Askaera bat izan litekeenaren zantzuak, ordura arteko anabasaren zioa argitzera letorkeen amaiera baten arrastoak ditugu, bestalde, *Bagoi bat ordokian* ipuinean: «Gero, denbora puska baten buruan, ikusi nahi izan nituen urruntasunean (...) argi gorri, ilun, keinukari batzuk (...) gero eta hurbilago, askoz ere hurbilago, jada kasik hain lizun eta kontaezin» (37. or.). Hipotesi moduan, errealita-

tearen eta ametsaren arteko mugako amaiera da ipuin honena. Hipotesi diogu, hain zuzen, «ikusitako nahi izan nituen» dioelako narratzaileak. Zalantzazko elementua agertzen da, beraz. Ez dugu jakiterik argi horiek benetakoak ote diren. Beraz, bada, berriro ere zalantza eta galderak nagusitzen dira amaieran: zer dira argi horiek? benetakoak ote dira? Ipuinari irtenbidea eman liezaiekeen elementu bezala ageri dira argiak, baina berriro ere galderak nagusitzen dira, ipuina zabalik utziz.

Amaiera ireki eta —espresioa zilegi bada— bukatugabeekin, irakurleari joko proposatzen dio Linazasorok, bere esku uzten du ipuina amaitzea. Nolanahi ere den, badirudi zalantza horiek ipuinaren beraren egitura narratiboa baino sakonagoko galderak planteatzen dituztela. Agian, jokoan dagoena ez da soilik ipuinari irtenbidea ematea. Linazasoro metaliteraturaren uretan sartzen da, gure uste apalean, amaierak zabalik utziz. Narratzaileak berak ipuinaz, ez ipuin konkretuez, ezpada ipuinaz, orokorrean, paratzen dituen galderak dira ipuinetakoak. Galdera sakonak, sinesgarritasunaz («Sinetsiko al dit norbaitek adierazten badut...», 83. or.), ipuin batean zilegi denaz edo egiantzekotasunaz.

Ustekabea da, bestalde, beste amaiera askoren ezaugarri berezkoenetakoa. Kolpe batez amaitzen dira ipuin asko. Ederki azaldu zigun Jose Luis Padronek (2001): «kolpetxo txiki batez —ipuin amaierak—, burrunba amaiezinaz eta nekaezinaz astintzen ditu egileak gure barrenak». «*Ezustea Ezuste* idatzi zuten platon horretan» (201. or.) irakurtzen dugu *Oinazeak orduak luze ditu* narrazioaren amaieran, eta keinuak ustekaberako prestatzen gaitu. Bat-baten, protagonistak Edurtxo, Patxi eta Julen bere neba-arrebak direla jakingo du eta orduantxe amaituko da narrazioa. Identitatea ezagutzearekin egiten du jolas, baita ere, *4. moilan* ipuinak. Amaieran ezagutzen dugu bi pertsonaiek, izenak trukatzear bat euren nortasunak aldatu dituztela. Nolanahi ere, maiz ustekabe hauek, horixe dira, ustekabeak, baina ez korapiloaren “askatzaileak”. *Oinazeak orduak luze ditu* narrazioaren amaieran Julen, Patxi eta Edurtxo narratzailearen neba-arrebak direla jakiteak ez du askatzen korapiloa. Egitekotan, koska bat estutuko luke. Izan ere, horrek ez digu azaltzen zergatik hil dituzten hainbeste pertsonaia, zergatik animaliaz moztutako pertsonak benetako animaliak diren amaieran...

Agian horrexegatik, erantzunik ematen ez dutelako kritikatu izan dira hain hemenka ipuin liburu hauen amaierak, Felipe Juaristik esaterako. Ana Urkiza (2001) ere, amaierak zuzenean aipatu gabe eta *Ipuin erotikoak* liburuaz ari dela ere, halatsu mintzo zen: «Kezkak planteatzen erantzunik ematerako bidean izan dezake, apika, Karlos Linazasorok bere hurrengo liburuak biribiltzeko edo irakurlea areago asetzeko parada». Ez gara gu hemen amaiera hauek defenditzen hasiko, baina literaturak galderak eta kezkak planteatzea, gaurko gizartean, aski eta sobera litzatekeela deritzogu.

Beroa

Bero egiten du Linazasororen ipuin hauetan, sargori, itogarri. Beroaren presentziaz horixe lortu nahi du idazleak: itomen-sentsazioa sortu. Ana Urkizak *Ipuin erotiko*-ez nabarmendu duenak balio digu hemen ere: «...bero-larriak aipatzen ditu pertsonaia, eta itolarriaren sentsazio bera helarazten zaio irakurleari ere» (*op. cit.*). Anitz dira beroari egindako erreferentziak liburuan zehar: «Sargori dago,

trumoitsu» (17. or.) esanez hasten da, adibide gisa, *Irratia piztu dut* ipuina. Hasieratik aurkezten zaigu egoera itogarria. Beroak, gainera, itomen-sentsazioa eragiteaz gain, seinale, keinu-papera jokatzeko du. Beroa zerbait gertatzera doan seinale izan ohi da. Ipuin honetan, ekaitza dakar sargoriak, arriskua. Beroaren bidez egonezina sortzen da, oreka apurtzen da, hondamendia datorrela aurreikusten da. Amaieran zera irakurtzen dugu: «Zer egin hil edo biziko zalantza izugarri honen tenorean, ziur badakit zeruak ezingo diola luzaroan eutsi zama astun horri?» (18. or.). *Hil ala biziko* atakan jartzen du beroak eta ekaitzak ipuin honetako pertsonaia. Ez dakigu pertsonaia honen egoera benetako arriskua ote den ala irudikapen hutsa. Izan ere, beroak hori ere eragiten du ipuinotan: aluzinazio-egoerak sor ditzake, eldarnioak, eta errealtatearen eta ametsaren arteko banalerroa ikusezin bihurtzen du.

«Eguzkia zaldi bat zen arrats-min zaurituan» (79. or.) dio *Onuzkirekin futbole*an ipuinean; «Beroak hauspoak amasestutzen zizkigun» (97. or.) *Harrijasotzailea*-n. Lehenean nahiz bigarreanean, ohikotasunean, egunerokotasunean, zalantza, dardara sortzera dator beroa, oreka apurtu eta errealtatea eta eldarnioa nahastera. Errealtatea eldarnio bihurtzera

Bizitza

Zentzugabekeriaren eta absurdoaren inguruan harilkatzen den liburu honetan, noski, bizitza da absurdorik handiena, zentzugabekeriarik handiena. Badirudi justifikatuago dagoela heriotza bizitza baino. Bizitza heriotzaren artean sortzen den halako akzidente bat da. Bizitza etengabe dago arriskuan liburu honetan, heriotzari edozein unetan leku egiteko prest.

Heriotzak ito eta inguratutako bizitza da liburu honetakoa. Bizitza iluna, beraz, hitsa, tristea eta zentzugabea. Bizitzaren arinkeria azpimarratzen da batzuetan: «bizia ez baitzen jada gure baitakoa: oroimen bat zen soil-soilik» (31. or.); zorte-kontua da beste batzuetan: «Bizitza, esaten den bezala, tonbola bat da, baina ez argiztatua eta koloretsua, iluna eta beltza baizik» (125. or.), baina betiere iluna eta beltza. Eta, liburu guztia zeharkatuz, galderak: «Zer zentzu du gure biziak, John Smart?» (111. or.).

Antzeman daiteke, agian, Linazasorok bizitzaz duen ikuspegia azaleratzen duela ipuin hauetan. *Oinazeak orduak luze ditu* narrazioan irakurri dugu: «han bizitzaren laztasuna ez areagotua baina bai bere horretan» (127. or.) azaltzen dela. Hala, irudituko luke Linazasorok bizitzaren laztasuna, gordintasuna adierazi nahi duela liburuan, zenbaitetan muturreraino, exagerazioraino eramanez. Hala ere, ez dakigu ironiaz ote dioen, baina bizitzaren alde egiten du Linazasorok liburuan: «...nola da posible bizitza? Merezi al du horrela bizitzeak? Eta nik, segituan, *bai* zorrotz batez erantzungo nioke galderari» (155. or.).

Borges, Jorge Luis

Bere gustuko idazleez galdetuz gero, berehala erantzuten du Linazasorok, zalantzarik egin gabe: «Kafka, Borges eta Cortázar dira behin eta berriz irakurtzen ditudanak edo irakurri izan ditudanak» (Agirre, 2000). Borges da, alfabetoak hala

behartuta hemen aipagai dugun lehena. Inondik ere aurkezpenik behar ez duen idazlea, Borges aipatzea, Babelko liburutegiko liburuzaina aipatzea, kasik literatura aipatzea bezain zabala baita. Piztia handi eta bihurria, handiegia agian, gure sare ttikira ekarri ahal izateko.

Handia da, bestalde, Borgesen itzala liburu honetako ipuinetan. Egileari berari kasu egitera, «Borges liburu osoan zehar dago: jokoetan, metaliteraturan, aipamen zuzen zein zeharkako baina beti ironikoetan...» (Zabala, 2000). Hor eta baita beste hamaika lekutan ere, erants genezake. Alabaina, luzeegi joko liguke eragin guztia hemen aztertzeak eta zenbait ezaugarri komun aipatuko ditugu hemen; osterantzean, Borgesen baitan beste hiztegitxo bat sortu beharko genuke.

Kausalitateari erreparatzeko aukera emango digu Borgesen aipamenak. Horretarako, beste idazle handi baten hitzak ekarriko ditugu akordura, Bernardo Atxagarenak, *Groenlandiako lezioan* bilduak:

Gure belaunaldiak, mende bukaera baino hogeita bost bat urte lehenago haren hitzak entzun edo irakurtzen zituenak, gauza asko ikasi zituen Borgesengandik. Esate baterako, nobelagintzaren arazo nagusia kausalitatea dela, eta naturalistek aldarrikatutako ahalegina —errealitate bakar eta zinezkoaren kopia edo notario-akta baten bila— banitate eta zentzugabekeria hutsa zela (Atxaga, 1998: 138).

Borgesek (besteren artean) proposatutako kausalitatea ez da, beraz, arrazoizko kausa-ondorio harremanetan oinarritzen dena. Kausalitate hau, naturalismotik edo xviii.mendeko arrazionalismotik eta positibismotik eratorritako mundu-ikuskerak alderantzikatzen duen elementua da. Literatura fantastikoaren barruan kokatzen gaitu hortaz, Borgesek, zeina «errealismoaren itxurakeriak baino zaharragoa eta egiazkoagoa» baita, idazle argentinarraren berbetan. Hel diezaioگون berriro Atxagaren alfabetoari:

Borgesek aldarrikatzen zuen kausalitatea *magie* delakoarena zen. Bere definizioaren arabera, magia kausalitate desberdin bat besterik ez da, eratzun edota lanpara baten ahalmenak agerian jartzen duena (*op. cit.* 141).

Kausa-ondorio efektu logikoetan oinarririk ez duen eta, nolabait deitzearren, magikoa den kausalitatea da, halaber, Linazasororen ipuingintzan aurkituko duguna, kausalitate magikoa. Har dezagun, esaterako, *Bagoi bat ordokian* testua, tren-istripu bat ardatz duena. Istripua gertatu eta berehala, arrazoiak, kausak bilatzeari ekiten dio narratzaileak, ondorio batera iristeko: «Ez ote zen izango barre anker eta espasmodiko hura istripua gertatu izanaren arrazoia?» (24. or.). Kausa-ondorio lotura arrazionalak berehala baztertuko luke galdera, inozoa ere izango litzateke. Edonork daki barre batek ez duela istripurik eragiten. Baina, berezko kausa-ondorio harremanak eraikitzen dira ipuinean, arrazionalismoarekin zerikusirik ez dutenak, kausalitate magikoaren baitan kokatzen direnak. Lerro ikusezin bat da kausa eta efektua lotzen dituen, ipuinean soilik dena baliagarria. 4. *moilan* narrazioan, berriz, «arrazoi psikosomatikoak» (52. or.) aipatzen dira protagonistaren mutazio eta metamorfosiaren kausa bezala. *Irratia piztu dut* ipuinean, bero itogarririk darama pertsonaia autoa bide bazterrera eramatera. *Onuzkirekin futboleak* testuan irakurri dugu: «Zergatik datorkidan orain oroimenera haretxekin izan nuen mintzaldia kapritxo bati zor zaio, eta ez nuke nahi azaldu» (78. or.). Linazasororen ipuinetan, *kapritxo* bat edo beroa izan daitezke heriotza baten kausa.

Kausalitatea momentuz alde batera utziz, baina Borges eta Linazasororen arteko harremanekin segituz, subjektuaren desintegrazioaren gaiari helduko diogu jarraian.

Ni desartikulatu bat da Borgesen narrazioetako, subjektuaren dekonstrukzioan oinarritua:

...[Borgesek] desborda sus límites biológicos y cronológicos y, en este desborde, el yo se multiplica, se fragmenta al mimetizarse con las cosas que observa y al mismo tiempo se descentra (Toriano, 1996: 284).

Borgesen *Historia Universal de la Infamia* (1935) liburuan kontakizunetako heroiek hainbat izen eta pertsonalitate hartzen dituzte, «conforme a su condición ubicua y errante» (*op. cit.*: 287). Izen propioen aldaketaren bidez, beraz, subjektuaren egonkortasunik eza adierazten dute Borgesen pertsonaiek. Gure ikergaira etorritz, Linazasororen hainbat ipuinetan antzerako joera, jolasa antzeman dezakegu.

Subjektuaren egonkortasun ezaren adibide garbiena *Ororen oroz, deus ez* dateke. Elkarrizketa bat da testu hau, bi pertsonaiaren artekoa. Elkarrizketaren hasieran, Henrik idazlea eta Guisfredo Biskerts ordezkari komertziala dira bi pertsonaiak. Autoa erostera doan idazlea da lehena, kontzesionarioko dendaria bigarrena. Laster, Biskertsek bere jarraitzaile sutsua dela esango dio Henrik idazleari, aspaldian ezagutzen duela (nahiz eta hasieran ezezagun plantak egiten dituzten; edo ezezagunak diren). Orduan, Henrik zena John Smart bihurtuko da, Guisfredo Biskertsek Bruce Townsend izena hartuko du. Izena aldatzearekin batera izaera ere aldatuko zaie: Townsted (kotxe-saltzailea zena) doktorea da orain. Ondoren, Townstedek Brchwstorp izena hartzen du eta Smartek Cacace. Azkenik, ipuinaren amaieran, berriro ere hasierako izenak hartuko dituzte.

Laborrizko garrasiak nire gibelean kontakizunean ere subjektuaren deskonposizioaz dihardu Linazasorok. Bertan, narratzaileak bere izena duen eskela irakurriko du eta pixkanaka ohartuko da bera dela hilda dagoena. Hala, pertsonaia bat zena bi dira orain: hildakoa eta bizirik dagoena. Bestetik, 4. *moilan* narrazioan, gizon baten itxuraldaketa kontatzen da eta amaieran berak hasieran zuen itxura bereganatu duen beste gizon batekin eginen du topo: bi pertsonaiek nortasunak trukatu dituzte. Bestalde, *Oinazeak orduak luze ditu* narrazioan ere izenekin jolasten du autoreak: Ana Morena Maria Morena bihurtzen da pasarte batean, atzera berriro Ana izena hartzeko. Narrazioaren amaieran, bestalde, Edurtxo, Julen eta Patxi zirenak Kapitulino, Melezio eta Flumenzio zirela ohartuko gara. Azkenik, narrazio berean «ez nintzela gehiago Simon Lozano izango, handik aurrera Armando Bonilla izango nintzela, eta gero gerokoak» (174. or.), dio pertsonaia batek. Hauetan guztietan ere, pertsonaien izaera ezegonkorra, aldakorra eta hauskorra nagusitzen da; norbanakoaren identitatea ez du gauza estatiko eta finkotzat hartzen Linazasororen narratibak.

Cortázar, Julio

Borges alde batera utzi, baina beste idazle argentinar bati heldu behar diogu: Julio Cortázarri alegia. Bera dugu Linazasororen bigarren fetitxe literarioa. Bigarre-

na alfabetoz, izan ere, garrantzi eta eraginez ari bagara agian lehenengoa litzateke Cortázar *Ez balego beste mundurik* liburuko imaginarioan.

Borges en nahiz Cortázarren literatura maiz sailkatu izan da “literatura fantastikoaren” barruan. Eta egia da, bien literaturak badu irrealistik, magikotik, errealitateaz haratagotik zerbait. Alabaina, arreta apur batez aztertuz gero, berehala ohartuko gara ez dugula biak zaku berean sartzerik: «También ha sido una operación cómoda meter a Borges y Cortázar en un mismo saco torpemente rotulado como literatura fantástica» (Alazraki, 1994: 61).

Izan ere, literatura fantastikoaren barruan kokatzen diren Poe bezalako XIX. mendeko idazleen eta Borges eta Cortázarren artean badago alde nabarmenik. Nolanahi ere, Cortázarrek berak aitortu izan du literatura fantastiko tradizionalaren eraginik baduela, desberdintasunak azpimarratzearekin batera:

Las huellas de escritores tales como Poe están indudablemente en los niveles más profundos de mis cuentos (...) Pero, y en eso hay completa unanimidad entre los escritores de este género en el Río de la Plata, algo me indicó desde el comienzo que el camino hacia esa otredad no estaba, en cuanto a la forma, en los trucos literarios de los cuales depende la literatura fantástica tradicional para su celebrado “patos”, que no se encontraba en la escenografía verbal que consiste en desorientar al lector desde el comienzo, condicionándolo con el clima mórbido para obligarlo a acceder dócilmente al misterio y al miedo (Alazraki, 1994: 60).

Ez genuke gure asmoetatik urrunegi joan nahi, baina gaude interesgarri dela Cortázarren iritziak eta joerak gainbegiratzea gero Linazasororenak hobeto ulertzeko. Hala, bada, Cortázarren literatura fantastikoa urrun samar kokatzen da XIX. mendearekiko: «ni él [Cortázar] ni Borges están interesados en asaltar al lector con los miedos y horrores que han sido definidos como los rasgos distintivos de lo fantástico puro o tradicional» (*ibidem*). Nola defini dezakegu, hortaz, Borges eta Cortázarren (eta Linazasororen) literatura, *literatura fantastikoaren* barruan kabitzen ez dena, baina, elementu fantastiko edo irrazionalerantz josia? Jaime Alazraki kritikoa *neofantastiko* generoa, sailkapena proposatu du literatura fantastikoa ulertzeko modu berri hau definitu ahal izateko. Errealismo faltsu bati emandako erantzuna da literatura neofantastiko hau, «ese falso realismo que consiste en creer que todas las cosas pueden describirse y explicarse como lo daba por sentado el optimismo filosófico y científico del siglo XVIII» (Alazraki, 1994: 62). Linazasorok ere espresuki arbuia izan du errealismoa: «Nik ez dut inoiz errealismoa maite izan. Fantasia da nire lanen ezaugarrietako bat» (Aldalur, 2001).

Errealitatearekiko mesfidantza eta kezkekin inarrosi nahi du irakurlea literatura honek, ez beldurrarekin, XIX. mendean bezala. Garbi azaldu zituen Cortázarren literaturaren helburuak Gerardo Markuletak: «Cortázarren xedea gure gizaki erosoaren seguritatea problematizatzea da, guregan egoneza sortuz, ikasitako eskema jakinak apurtuz, “errealitatea” eta fantasiaren arteko muga ez dela hain garbia agerian jarritz» (Markuleta, 1992: 8).

Errealitate hori problematizatzeke bi modu jorratu izan dituzte, baina, Borgesek eta Cortázarrek. Borgesek unibertso artifizialak, errealitate inbentatuak sortu ditu. Bere bizitza *irrealtzat* jo eta gauza erreal bakarra liburutegia dela esatera heldu zen. Borgesek irrealitateak bilatzen ditu «no en el ámbito de lo sobrenatural o de

lo maravilloso, sino en esos símbolos y sistemas que definen nuestra realidad, en filosofías y teologías que de alguna manera constituyen el meollo de nuestra cultura» (Alazraki, 1994: 64).

Bestelakoa da Cortázarren bidea, Linazasorok jarraituko duena. Río de la Platako idazlearen irrealitatea «hogeita hamar mendetako dialektika judeo-kristauari» egindako desafioa da; logika aristotelikoari, egia/gezur dialektikari eta kausa-ondorio kateari jotako erronka. Denbora eta espazio *logikoak* hankaz gora jartzean datza, nagusiki Cortázarren irrealitatea, hala, errealitateak eta fantasiak bat egiten dutelarik:

La narración se apoya con idéntica certeza en la dimensión histórica como en la dimensión fantástica (...). El código realista cede a un código que ya no responde a nuestras categorías causales de tiempo y espacio (*op. cit.* 69).

Bat-batean, ustekabean txertatzen dira elementu fantastiko eta irrealak *errealitatean*, Cortázarren eta Linazasororen kasuan: «no hay un proceso gradual de presentación de la realidad para finalmente abrir en ella una fisura de irrealidad» (*ibidem*). Sinesgarritasun bera dute testuan bi ordenek, maila fantastikoa maila errealista bezain erreala da.

Cortázarren bidea da Linazasorok bere ipuingintzan jarraitzen duena. Errealitatean bat-batean, graduaziorik edo aldez aurretiko abisurik gabe eztanda egiten dute elementu fantastiko-irrealek. Har dezagun, esaterako, *Laborrizko garrasiak nire gibelean* ipuina. Bertan, etxetik lanera doan gizon bat agertzen zaigu, bat-batean bere burua eskela batean ikusten duena. «Eta orduan: ni nauk. Su puta madre» (88. or.) labur batekin sartzen da elementu fantastikoa ipuinean. Aldez aurretik ez dago ondorio horretara daraman gradazio edo progresiorik. *Demagun kriptak* bat narrazioan ere tupustean sartzen da kaosa sortzera datorren elementua: «Hitzaldiaren erdi-parera-edo, agure bat aulkitik altxatu da, nahikoa zalaparta eginez» (7. or.). *Marius Lippi* narrazio laburrean ere eskiatzailea bat-batean desagertu egiten da: «galdu egin zen bat-batean gure bistatik, desagertu» (22. or.). Bat-bateko gertakari eta elementu hauek hankaz gora jartzen dute ordura arteko kode errea-lista eta errealitatearen eta fantasiaren arteko muga apurtuz egiten du aurrera narrazioak.

Denbora

Gorago aipatu berri dugunez, Linazasororen literatura neofantastikoak denbora eta espazio bereziak eskatzen ditu. «Cortázar se detiene, en particular en dos de los engranajes más poderosos de esa máquina intelectual, el tiempo y el espacio» diosku Alazrakik (*op. cit.* 68). Cortázarrek berak zera dio bere ipuinetako denboraren inguruan:

Las nociones del tiempo y del espacio como las concibió el espíritu griego y tras él casi todo el Occidente, carecen de sentido en el Vedanta. En cierto modo el hombre se equivocó al inventar el tiempo; por eso bastaría realmente renunciar a la mortalidad para saltar fuera del tiempo (*ibidem*).

Kausalitate magikoa sartuz kausa-ondorio harreman logikoa eteten duen bezala, denboraren kontzeptzio berezia aurkituko dugu Linazasoreen ipuinetan. Arrazoi aristotelikoari, logikari ihes egiten diona.

Hasieratik hasteko, so egin diezaiogun *Demagun kriptat* bat ipuinari. Narrazioan, denbora zehaztugabe batean dago kokatuta. Ostegun eguerdian egiten den liburu-aurkezpena da gaia (denbora-erreferentzia sinesgarria, bestalde, izan ere liburu-aurkezpen ugari ostegun eguerdiz egiten baitira gurean). Denborari egindako hurrengo erreferentzia 11. orrialdean dugu: «dagoeneko bi ordu pasatu» dira. Hurrengo aipamenak ordura arteko errealismo zantzuak oro desegiten ditu: «honezkerok ez duk gure bila inor etorriko, lau hilabete denbora puska polita da-eta!» (15. or.). Egoera absurdo batean garatzen da ipuineko istorioa: arrazoirik gabe, kriptat erabat zarratu da, ez dago irtetarik. Hala, giro absurdoak eskatzen duen denbora-kontzeptzioa agertzen du Linazasorok: lau hilabete iragan direla esanez. Izan ere, azken finean, ipuina barne-logika baten arabera eraikitzen da eta, bertan, bat datoz denbora, kausa edo denbora, helburu bakarrarekin: errealitatea aztortzea, errealitate paralelo bat aurkeztea, bestea bezain erreal eta sinesgarria. *Itzulbidean*, bestalde, heriotza ukatzen duen denbora bat azaltzen da. Etxera itzultzen den gudari zaharra da pertsonaia eta «Nolaz atzeratu da, baina, hainbeste?» (99. or.) galdetzen du narratzaileak hasieran. Amaieran, «hainbeste menderen bueltan» (99. or.) itzultzen dela dio Linazasorok. Garbi, hankaz gora botatzen da hemen denboraz Mendebaldeak duen kontzeptzioa. Mende luzetan bizi den pertsonaiak derrigorrean heriotzaren muga gainditzen du, eternitatera hurbilduz.

Demagun kriptat bat narrazioko denbora bertsua agertzen da amaierako narrazioan ere. Hasieran bezala, egoera absurdo batean kokatzen ditu Linazasorok pertsonaiak, irteerarik eta zentzurik gabeko egoeran, eta denboraren joana ere logikaz kanpokoa da narrazioan: «Hilabete eta erdiko itxaronaldia» (124. or.) egin dute telebista-saioan ikusleek; beranduago galde egiten du narratzaileak: «Zenbat egun, zenbat urte, zenbat hilabete ziren han neramatzanak?» (197. or.). Azken finean, denbora ere beste *tranpa* bat izan dela ondorioztatuko du narratzaileak.

Gainerakoan, denboraren anbiguitasuna behin eta berriro geratzen da agerian: «ez genuke ziurtasun osoz esaten jakingo —baina badakizu baietz— zenbat denbora igaro zen...» (48. or.); «...ez dut urtaroz oroimen garbirik ere...» (165. or.); «Zein hamarkadatan, baina? Zein urtetan? Zein egunetan?» (166. or.)...

Eldarnioa

Eldarnioak zuen izena Linazasoreen lehen ipuin-bildumak. Anjel Lertxundiren arabera: «Eldarniorik gabeko poesia gutxi irakurtzen da gaur euskal literaturan, baina, oker ez banago, Karlos Linazasorok atera zuen hitza ahanzduaren almazenetik eta ibiltzen jarri» (Lertxundi, 2000).

Zer da, baina, eldarnioa? Jo dezagun berriro hiztegi ortodoxo batera: «Sukar-ametsa, delirioa» da ematen digun erantzun laburra. Ametsaren munduan kokatzen gaitu, beraz, eldarnioak, eta, berriro ere Borges eta Cortázar aipatu behar ditugu. Borgesen narratibaz zera esan daiteke:

Mediante los signos y la atmósfera del sueño, la pesadilla, el vértigo, la fiebre, el delirio, la alucinación, la agonía, la revelación y el olvido, Borges construye un nuevo verosímil (...) (Lagos, 1986: 140).

Borgesek, halaber, «insiste en la naturaleza febril de la experiencia» (*ibidem*). Cortázarrek ere ametsarekin lotzen ditu bere ipuin asko. Hala dio bere ipuin batez: «(un cuento) que yo soñé con todos los detalles que figuran en el texto y que escribí al saltar de la cama» (Alazraki, 1994: 71).

Linazasororengana etorri, egileak berak azpimarratu izan de bere obraren «ukitu onirikoa» (Aldalur, 2001), ametsezkoa. Hala azpimarratu du Jose Luis Padronek ere: «surrealismoaren amets hotzak» (Padron, 2001) nabarmenduz *Ez balego beste mundurik* liburuan. Nolanahi ere, berotik gehiago dute, gure iritzian, Linazasororen ametsek: sukarrak, ametsak dira, eldarnioak, sarritan beroarekin eta sargoriarekin lotutakoak. Aipatu dugu gorago beroa eta sargoria oso presente daudela liburuan zehar eta horixe da, maiz, eldarnioa eragiten duena. *Irratia piztu dut* ipuina «sargori dago, trumoiatsu» (17. or.) esanez hasten da, eta, berehala, bero horrek ametserantz eramaten du ipuina, eromenerantz. *Harrijasotzailea*-n ere sargoriak ametsaren eta irrealitatearen esparrura darama zezen-plaza, harri-jasotzaileak harriari «hamalau txortaldi» (98. or.) jo arte. Hemen aipa genezake, baita ere, *Basamortu antzuetatik* testu erabat oniriko eta lirikoa, beroaren erreferentzia basamortua aipatuz sartzen delarik, agian. Ametsa eta errealtatea bereizi nahi eta ezinaren arteko atakan aurkitzen dugu, bestalde, *4. moilan*-eko protagonista: «Zorutzen hasita ote zegoen pentsatu zuen orduantxe, hura guztia eldarnio bat izan ote zitekeen, edo lagunaren baten broma bat» (58. or.). Eldarnio-kutsuz amaitzen da, halaber, *Bagoi bat ordokian*: «ikusitako nahi izan nituen urruntasunean...» (37. or.).

Ez legoke soberan, eta Padronek honezkero aurreratu duenez, surrealismoaren eragina aipatzea hemen. Izan ere, surrealismoaren ezaugarri eta joera nagusienetakoa da ametsaren eta errealtatearen arteko muga apurtzea. Nolanahi ere, Cortázarren kasuan gertatzen den bezala, surrealismoaren eragina ez dago agian teknika narratiboetan (nahiz eta umore surrealista egon badagoen). Aitzitik, surrealismoa teknikez edo belaunaldiez haratago doa eta mundu-ikuskerara berezko bat osatzen du. Cortázarren prosak «ostenta muy poco de la utilería surrealista porque su adhesión al surrealismo rebasa el hecho meramente estético, para abrazarlo (...) como una cosmovisión» (Alazraki, 1994: 66). Linazasororen mundu-ikuskerara ere surrealismotik gertu dago: ez da errealtatea eta eldarnioa bereizten.

Filosofia

Ia-ia topiko bihurtu bada ere esan dezakegu Linazasororen estetika etika zehatz baten arabera osatzen dela; ez dagoela estetika eta etika bereizterik, alegia. Izan ere, joera filosofiko eta intelektual markatuak agertzen dira liburu honetan, aipamen zuzenak maiz, zeharkakoak urriago. Borges eta orain arte aipatu ez arren alfabeto honetan lekua merezi lukeen Italo Calvino aipatu behar ditugu eragin-iturri bezala. Bi egile hauek «no desestiman recurrir a la filosofía como fuente de inspiración» (Gutiérrez, 1996: 250). Jolas moduan agertuko litzateke, hala ere, inspirazio-iturri hau: «Sin transformarla en *filosofía*, la producción literaria

de Calvino y Borges refleja una mirada lúdica sobre las producciones filosóficas» (*op. cit.* 259).

Existenzialismoa aipatu beharko genuke, lehenik, Linazasoreen oinarri filosofiko bezala. Absurdoaren inguruan mugitzen da maiz honen literatura eta absurdoaren literaturak asko zor dio filosofia existenzialistari. «Ez dakit nire ipuinak absurdoak diren, baina bizitza bada absurdoa» (Carrere, 2001) zioen elkarrizketa batean tolosarrak. Bizitzaren kontzepzio bertsua agertzen zaigu liburuan bertan ere: «Benetako gizona ez da existitzen» (83. or.) dio *William Lang*-en; *Ororen oroz deus ez-etik* hartutakoa da ondokoa: «–Zein arrazoi daukagu bizitzeko? / –Bizi garela, besterik ez» (111. or.); azken narrazioan dio: «erlijioak biziari zentzu bat aurkitzen lagunduko ziolakoan, sekta batean sartu zen» (169. or.); «Jainkoak ongi daki hori edo jakingo luke, aspaldian hila ez balego» (181. or.)...

Wittgenstein-en aipua topatuko dugu *Ajereza*-n: «Erregelaren gainean ez da inor mintzo, ezin denaz ezin baita mintzo» (19. or.). Schopenhauer esplizituki aipatzen da *Jaits zaitez nire begietatik* narrazioan: «orduaren gogoratu nintzen Schopenhauerrez, hark idatzi baitzuen (eta neuk irakurri) urruntasunak pentsamendua handitzen duela» (85. or.). Erich Fromm-en oihartzuna entzun dezakegu, berriz, pasarte honetan: «–Eta guri nork kentzen digu askatasuna? / –Guri? Askatasunak berak. Hautatu beharrak» (113. or.).

Filosofia asko dago liburu honetan, eta ez aipamen edo erreferentzien bidez soilik. Filosofiak, munduaren ikuskera bereziak baldintzatzen du liburua, horren arabera da Linazasoreen literatura. Aipamen gutxi batzuk ekarri ditugu hona, gure ezjakintasunak mugatuta batetik; erreferentzia eta jokoak ia amaigabeak direlako bestetik.

Gabeziak

Gabeziak, inperfekzioak dira ipuin hauetako pertsonaia askoren ezaugarria, asko dira gorputz-adarren bat edo zentzumeneren bat ments duten pertsonaiak: «emazteak labanaz moztu zion beso berbera» (129. or.), «nire besoen falta ez dut alaitasunez bizi» (113. or.)...

Halaber, gorputz-adarrak erauzten ditu pertsonaiak *Oinazeak orduak luze ditu* ipuinean «Ez naiz osorik hilko» (180. or.) esan ondoren. Gabezia fisiko horiek giza gabezia sakonagoen kanpoko azaleratzeak baino ez direla irudituko luke. Heriotzak inguratutako bizitza garrantz eta inperfektuan, osagabeak eta inperfektuak dira gizakiak ere.

Heriotza

Hein handi batean filosofia existenzialistak eragindako mundu-ikuskerak baldintzatuta, heriotzaren presentzia etengabea eta obsesiboa da liburu guztian zehar. Bere forma guztietan agertzen da heriotza: hilketa bezala, heriotza natural bezala, suizidio eran... Halaber, zeregin desberdina betetzen du heriotzak ipuinez ipuin: irtenbidea da batzuetan, arazoa beste batzuetan, oinazea inoiz, espektakulua sarri... Guztietan ere, Ana Urkizak nabarmendu bezala «heriotzaren aurrean pertsonaiek nola erreakzionatzen duten ikusi nahi du» (Urkiza, 2001) Linazasorok.

Bat-bateko heriotza *naturalak* agertzen dira zenbaitetan: *Demagun kriptak* bat-en agurea bat-batean hiltzen da, inguruko artean egonezina areagotuz. *Marius Lippi*-n ere bat-bateko heriotzak ematen dio amaiera ipuinari; *Errebisiorik egin gabe* ipuinean ere bat-batean hiltzen da itxarongelako gizona, musika-hariaren eraginez; *Laborrizko garrasiak nire gibelean* ipuinean istripuz hiltzen da protagonista eta heriotza problema, enigma bihurtzen da berehala...

Suizidio moduan azaltzen da, bestalde, heriotza *Jaits zaitetz nire begietatik*-en: xabalina-jaurtitzailleak burua *propio* moztu zuela esaten da.

Heriotza bortitzak eta eraiketa gordinak dira nagusi, hala ere, zenbait narrazioetan: *Bagoi bat ordokian* narrazioan, esaterako, «eskuetatik joan zitzaidan, betiko hil nuen» (36. or.) dio narratzaileak. *Oinazeak orduak luze ditu* dugu, hala ere, heriotzaren presentzia obsesiboena den ipuina: «Borge jauna hilurren zen» (122. or.), «Nork hil zuen? Zergatik hil zenuen?» (128. or.), «Gurasoak naufragio batean hil zitzaizkion; anai-arrebak istripu batean galdu zituen...» (129. or.), «Animaliarik txikienak, fisikoki ahulenak zirenak akabatu egiten zituztela?» (139. or.), «Infartoak ez ziren izan ez bat eta ez bi, hiru baizik» (140. or.), «"Hil dezatela" esan zuen halako batean Deere jaunak» (144. or.), «Nola ulertu behar zen usapal guztien hilketak?» (149. or.), «Bihotzekoak jota hil zela esan ziguten» (162. or.), «Hil dezatela! Exekuta dezatela! Asesina dezatela!» (177. or.), «dozenaka hildako utzi nituela» (179. or.), «zirtolari hura fusilatua izan zen» (178. or.)... Absurdoaren logikan eraikitako narrazio honetan, arrazoi gabeko heriotzak eta hilketak ageri dira eten-gabe. Arazoen aurrean irtenbide bezala agertzen da maiz heriotza: exekutatu egiten dira bekatuak egindako pertsonaiak, desagertutako pertsonaiak erailak izan direla ondorioztatzen da... Zalantza guztiak heriotzaren bidez azaltzen dira; zentzugabeko heriotzaz, nolana ere.

Heriotzaren aurrean pertsonaiek erreakzio desberdinak hartzen dituzte; umorea, barrea izaten da maiz erantzuna: «esku odolez beteetarik erori zitzaidan liburua, eta poztu ere egin nintzela egia da» (23. or.), «betiko hil nuen, eta nire baitan alaitasun sakona sentitu nuen» (36. or.).

Erabateko pasibitatea agertzen dute, beste batzuetan, heriotzaren aurrean: «ezinezkoa dela hain pasibo izatea zorigaitza edota heriotza hain hurbil da-goenean» (33. or.).

Ironia

Ironia du izena Linazasorearen literaturak duen arma garrantzitsu eta arriskutsu batek. Utz diezaiozun idazleari berari azaltzen: «Nik asko erabiltzen dudana arma da ironia. Indar handiko arma. Baina jakin egin behar da erabiltzen. Ironia herabeon autodefentsa bat da, ezkutu bat. Guk ez dugu mundua jaterik, eta babes bat behar dugu. Hori ironia da» (Zabala, 2000). Pentsatzen denaz bestelakoa esatea litzateke, definizio xume batean, ironia. Irakurlearengan harridura edo txokea eragiteko teknika bat. Hiztegiaren arabera, «zerbaitez edo norbaitez iseka egiteko era, adierazi nahi denaren kontrakoa esatean datzana». Nolanahi ere den, Linazasorearen ironia teknika xume bat baino askoz gehiago da. Mundu-ikuskerak bat da finean, gauzekiko distantzia ezartze bat, gauzarik gogorra umorez

esateko bidea. «Tesi bat baino gehiago egin daiteke Karlosen ironiaz, esan gabe esaten dituen horiez» (Lertxundi, 2000) adierazi zuen Anjel Lertxundik liburuaren aurkezpenean. Baina zera gaineratu zuen: «Karlos Linazasororen ironia, bene-benetako ironia guztiak bezala, autoironiatik hasten da» (*ibidem*). Hala arrazoitu du Linazasorok bere autoironiaren beharra: «Nork bere buruarekin erabiliz gero, zilegi da gainerakoekin ere ironia erabiltzea. Bestela, ez da batere justua» (*ibidem*). Honek berak erakusten du nola ironia teknika hutsetik haratago doan ezaugarri sakonekoa den. Bere buruarekiko ere distantzia hartzen du Linazasorok, bere buruaz barre egiten du gainerakoez barre egin ahal izateko. Horretarako, agian bere *alter ego*-a izan litekeen K.L. pertsonaia erabiltzen du, lehen narrazioan, esaterako. *Demagun kripta bat* ipuinean K.L. idazle gaztea agertzen da bere liburu berria aurkezten; idazleaz neurrigabeko losintxak eta laudorioak botatzen ditu narratzaileak: «K.L. idazle gazteari ematen diote hitza lehenik. Aukera primerakoa duela eta, sekulako hitzaldia prestatu du liburu berria aurkezteko. Hamasei folioko hitzaldi bikain, zorrotz eta eruditoa, liburu berberaren antzirudira» (8. or.). «Jendea adi dago, idazleak komunikatzeko duen gaitasun paregabeaz zorabiatuak» (9. or.). Ez dugu uste beharrezkoa denik ironia zertan gauzatzen den azaltzen hastea. Ez da hau, hala ere, idazlearen figurari buruz egindako komentario ironiko bakarra, izan asko baitira liburuan zehar.

Norbere buruarekiko autoironiaz gain, bada besteekiko, munduarekiko ironia orokor bat ere: «Sikiera gure artean bertsolariren bat egongo balitz» (11. or.), «ekin-tza haren errua intsumisoei edo feministei egoztea ere ez zaie bidezkoa iruditu» (12. or.), «jada pasio-iturri jori bihurtua zuena: otomanoen enperadoreari buruzko liburuak irakurtzea» (60. or.), «Eta nire aitaren etxea egurrezkoa da, eta defendatuko dut otsoetatik, sikateetatik, Jehovaren lekukoetatik (kosta lain kosta)» (97. or.)... Gizarteko joera eta jokabideak ironia finez eta landuz azaltzen ditu Linazasorok, maiz topikoetara joz, beherago azaltzen ahaleginduko garen bezala.

Itxaropena

Absurdoaren erdian, zentzugabetasunak harrapatuta daudela, etsipenak jota, hala ere, mantentzen dute liburu honetako pertsonaiek itxaropenerako zirrikiturik. Iluntasun erabatekoan argia egingo den itxaropena dute, absurdoaren erdian arrazoi nagusituko dela. «Beti ere gauzak lehenera itzuliko diren itxaropena dute Karlos Linazasororen pertsonaia bakartiek. Etorri bezala joango direla zorigaitzak» (Lertxundi, 2000). Idazleak berak ere itxaropenerako tarte zerbait uzten du, esaterako, bizitzari baiezkua emanez: «Merezi al du horrela bizitzeak? Eta nik, segituan, *bai* zorrotz batez erantzungo nioke galderari» (155. or.). Lehen narrazioan ere, amaieran, atek zabalik geratzen dira, esperantzarako tarte irekita utziz. Metamorfosi-prozesuak harrapatuta dagoen Brown jaunak «berriz ere uste izan zuen izulaborrizko bidaia hark muturrera iritsi bezala atzeranzko bideari ekingo ziola, eta laster ahaztuta izango zituela amesgaizto ondikozkoak» (74. or.).

Hala ere, itxaropena nahiko ingenuoa da ipuinetan, izan ere, sarritan ez dago inolako irtenbiderik. Linazasororen giroak erabat itxiak, absurdoak dira eta ez dago ihesbiderik. Badirudi idazlearen borondateaz gairako zerbaitek itxaropena ukatzen diela konspirazio ilunenen biktima diren pertsonaia errugabeei.

Jolasa

Literaturaren alde ludikoa azpimarratu izan du sarri Linazasorok. Ironia eta distantzia-hartzea, esate baterako, jolas bezala aurkezten ditu maiz. Hala ere, hori baino harantzago doa jolasaren presentzia liburu honetan eta atzera Cortázar ekarri behar dugu akordura: «El espíritu de juego asoma a lo largo de la obra de Cortázar desde el título mismo de los libros» (Alazraki, 1994: 91). Gogora dezagun *Final del juego* duela izenburu argentinarraren narrazio liburu batek. Alazrakiren arabera, *homo sapiens*-etik *homo ludens*-era igarotzeko gogo nabari da Cortázarren lanetan.

Linazasororengan jolasaren eta literaturaren arteko lotura-maila gauzatzen da. Jolasa du ardatz, esaterako, *Ajereza* ipuinak (izenburuan bertan hasten da hemen ere jolasa). Xakearen traza duen jolasa da “ajereza”, hala ematen digute aditzera zenbait elementuk: lehenik, *ajereza* eta *ajedreza*-ren arteko loturak; bestetik, zaldiak eta dorreak ageri zaizkigu, xakean bezala. Nolanahi ere, erregela bereziak ditu jolas honek: «Debekatuta dago —hau bai, esplizitoki—, aldi berean, espiraletan jardutea edo espiralki jokatzea» (20. or.), espiralak «ekologiarekin, naturarekin eta sorkuntzarekin» konnotazio zuzenak dituelako. Badirudi ajereza heriotzaranzko jolasa dela, izan ere «berez, ajerezean ez da denborarik irabazten (...) bizi atal bat galdu baizik» (20. or.). Amaieran, “gudaldia ankerra” izan dela diosku narratzaileak eta parusiaren (denboren akabuko Kristoren etorrera loriatsuaren) zain gelditzen direla.

Bestalde, *Oinazeak orduak luze ditu* ere jolas bezala irakur daiteke agian. Telebista-saio honetan hasieratik daude ezarrita arauak eta erregelak: «bost milioi bana eman zizkiguten aurrez telefonoz agindu bezala, bost kilo garbi, aginduko zitzaiguna betetzeagatik» (121. or.). Hortik aurrera, jolas makabro eta amaigabea hasiko da. Azken finean, ipuin hauetarik zenbait jolasak dira, eta jolas orori dagokion bezala, bere arau eta muga berezkoen arabera taxuturik daude; maiz, gainera, joko-arau horiek ez datoz bat errealitatearen arau zurruneekin.

Hitzeekin egiten du jolas maiz, halaber, Linazasorok. Hitzen esanahiekin egindako jolasak, adiera bikoitzeekin egindako jolasak aurkitzen ditugu ipuin frankotan. *Errebisiorik egin gabe*-n hitz joko bat da ardatza. *Haria* hitzaren esanahi bikoitzarekin egiten du jolas: *musika haria* esanahi arrunteko hariarekin lotuko du, egoera absurdoa sortuz: «musika haria zetorren, suge bat bezain isil gordean, gizaseme adintsuaren leporaino» (45. or.). Esaldi baten esanahi bikoitzarekin egiten du jolas, bestalde, *Oinazeak orduak luze ditu* narrazioan: «“Ez naiz osorik hilko”. Eta sententzia irakurtzearekin batera, hankak enborretik atera zituen erro-errotik, eta besoak gero, eta azkenik nola halako soinketa ikusgarri bat eginez, burua» (180. or.). Adibideok erakusten dutenez, hitzen esanahi zehatzaren eta figuratuaren arteko jolasa egiten du Linazasorok: esaldi metaforikoari esanahi konkretua emanez.

Azkenik, intertestualitatea oso gogoko jolasa du Linazasorok. Beste idazle eta liburuetakoa aipamenak ugari dira oso, eta maiz esanahi berria hartuta ageri dira. Aresti aurkituko dugu hemen: «Eta nire aitaren etxea egurrezkoa da, eta defendatuko dut otsoetatik, sikateetatik, Jehovaren lekukoetatik (kosta lain kosta)» (97. or.). Bernardo Atxagaren aipamenak han-hemenka: «...eta guri, krak, zerbait hautsi

zitzaigun bihotzean» (127. or.), «Inoiz ez da jakiten noiz» (80. or.), Lizardi: «—Doktore, min dut. / —Min etsia?» (115. or.), Xabier Lete: «zurbil aurpegia, itzal begiak» (141. or.); Anjel Lertxundik iradoki duenez, *Moliner* idazlearen atzean Igerabideren erreferentzia egon liteke; «Magris gozotegia» (93. or.) aipatzen da... Mugagabeak dira joko eta erreferentzia intertestualak, maiz oharkabean pasatzen zaizkigunak.

Kafka, Franz

Idazle txekiarra dugu Linazasororen idazle kuttunetan hirugarrena (alfabetoz). Tolosarrak «Kafkaren bidetik» jotzen duela nabarmendu du Jon Kortazarrek (2001). Txekiarraren ipuinak ditu bereziki gogoko Linazasorok, nobelak baino gehiago.

Zernahi gisaz, Kafkaren nobelek ere badute eraginik liburu honetan; *Metamorfosia*-k, bereziki. Oso nabarmena da eragin hori *4. moilan* narrazioan. Bertan, metamorfosi bat kontatzen da, pausoz pauso. Hasieratik bertatik dakar gogora Kafkaren nobela ipuin honek:

Beti bezala esnatu zen Brown jauna goiz euritsu hartan, zortziak aldera, eta ezkongabea zenez eta bakarrik bizi zenez, inork ez zion esan azazkal haiek oso aldatuta zeuzkala (47. or.).

Kafkaren *Metamorfosia*, berriz, honela hasten da:

Goiz batean, loaldi aztoragarriaren ostean, Gregorio Samsa zomorro bihurturik esnatu zen (Kafka, 2000: 11).

Jakina, desberdintasunak ugari dira: batean azazkala du aldaturik pertsonaiak, bestean zomorro bilakatuta esnatzen da. Hala ere, badute elementu komunik: biak kokatzen dira goizean, logelako ohean, eta biek dute metamorfosi-zantzua. Bestalde, «egun euritsua» aipatzen da Linazasororen ipuinean, «txist eta txost ari ziren euri tantak» Kafkarenean. Desberdintasunak desberdintasun, beraz, abiapuntu narratibo aski antzerakoa dute bi narrazioek: goiz euritsua, logela eta metamorfosia. Linazasororen ipuineko pertsonaia, apurka-apurka beste pertsona bat bihurtuko da: «azken eta erabateko itxuraldaketaraino». (48-49. orr.). Implizituki (ia esplizituki, egia esan) egiten dio aipamena Linazasorok *Metamorfosia*-ri ipuinean bertan: «[Brown jaunak] ezin izan zuen ekidin, ukitu malenkoniatsu batez, gaztaroko hainbat literatur munstroren gogoeta xaloa egitea, eta irribarre harekin lokartu zen» (50-51. orr.). *Metamorfosiaren* gainean egindako bariazio edo berrirakurketa bezala har dezakegu narrazio hau, beraz, Kafkaren liburuari egindako omenaldi bezala.

Dena den, Linazasorok berak nabarmendu duenez, «Azken ipuinean, berriz, luzeenean Kafkaren eragina nabaria da» (Zabala, 2000). Azken narrazio horretan erabatekoa da giro kafkianoa. Giro iluna, hitsa, heriotzaren presentzia obsesiboaz inguratua eta absurdoa da nagusi bertan. Halaber, metamorfosi edo itxuraldaketak ugari dira: hasieran animaliaz maskaraturiko pertsonak zirenak animalia bihurtzen dira amaieran.

Kafkarekin lotu behar dugu, azkenik eta derrigor, leku- eta pertsona-izenak azaltzean Linazasorok darabilen teknika: letra bakarrak erabiltzea, alegia. K.L. edo B.L. pertsonaiak edo eta T. hiria, Kafkaren eskolaren jarraitzaile dira.

K.L.

K eta L, elkarren segidan, enigma bat dira liburu honetan. Karlos Linazasorearen *alter egoa* izan liteke agian. Baditu harekin zenbait antzekotasun: lehenengo narrazioan idazlearen karakterizazioa bat dator, neurri batean behintzat, Linazasorearekin: idazle gaztea (?), ipuin-bilduma aurkezten duena. Alabaina, azken narrazioan B.L. izenaz agertzen zaigu T.-ko liburuzaina. B.L.-k (beste liburu batzuetan Berardo L.) ere lotura estuak ditu Linazasorearekin. Linazasorearen liburuaren idazle bezala agertzen da azken narrazioan, nahiz eta liburuaren izenak apur bat itxuraldatuta dauden: «*Udazkenetik badator karabana erraturik, Apunte eta azkurak eta Urliaren eskuak*, olerki liburuak; *Eldarniotan*, ipuin-sorta eta *Zer gerta ere*, nire nobela oso amaitu gabea» (195-196,orr.). Bere liburuak zerrendatzen ari da hemen idazlea: *Udazkeneko karabana erratuak, Apunteak eta ahanzturak, Euriaren eskuak, Eldarnioak eta Zer gerta ere*. Badirudi idazleak *alter ego* bat baino gehiago dituela, edo agian, Borges aipatzean esan bezala, berriro ere subjektuaren desegiteari buruz ari da Linazasoro izen-aldaketan bidez.

Komunikazioa

Komunikazioa baino gehiago, agian inkomunikazioa aipatu beharko genuke Linazasorearen ipuinetako ezaugarri bezala. Komunikatu nahi eta ezinean agertzen dira behin eta berriz pertsonaiak; asko dira gaizki-ulertuak, ulertu ezinak.

Ironia-kutsu handiz idazlearen eta irakurlearen arteko inkomunikazioa agertzen du Linazasorok lehen narrazioan, *Demagun kripta bat* delakoan. Bertan, agurea hil ondoren, K.L. idazleak «berean jarraitzen du, sorgor eta itsu, ezer gertatuko ez balitz bezala» (13. or.), eta bere liburuaz berbetan jarraitzen du. Idazlea bere munduan barnebildurik, besteen arazok ukitzen ez dutela agertzen da. Molinero poetak, halaber, bere olerkiak errezitatzen jarraitzen du, inguruneari sorgor. *Ororen oroz, deus ez* elkarrizketan, elkar ezin ulerturik dabilta solaskideak: «Beraz, umorea da zure besoak, edo umoreak dira zure besoa; edo besodun zinenean umoregabea zinen, edo zer arraio esan nahi didazu, Smart?» (111. or.). *Oinazeak orduak luze ditu* narrazio luzean espresuki aipatzen da komunikazio-ezintasuna: «betidanik gogaitu izan nauen komunikazio-inkomunikazio dikotomiak sortzen dituen arazo nire ustez konponezinekin akordatu nintzela orduan ere» (153. or.). Narrazio honetan bertan arazo garrantzitsua da dialektika hori: «eta esan nion gaizki ulertu zuela nire galdera, nik ez niola sexuaz galdetzen, bere esistentziaren funtsaz baizik» (156. or.), «Orduan ulertu nuen gaizki juzgatu nituela gonbidatukidearen hitzak eta keinuak, eta ni ez ninduela ezagutzen» (157. or.), «Alferrikakoa da esatea Horazioren sententzia gaizki interpretatu zuela Bonilla jaunak, oso modu *sui generis* batean» (180. or.).

Baina komunikazio-inkomunikazio dikotomiak garrantzia duela esatean ez dugu soilik esan nahi maiz gertatzen direla gaizki-ulertuak. Izan ere, inkomunikazioak kalte konponezinak dakartza maiz. Linazasorok gauzak muturreraino eramateko duen joerari jarraituz, inkomunikazioak heriotza ekar dezake, anputazioa... Exageratuta, esperpentoraino eramanda, gizakien arteko barneko eta berezko komunikazio-ezintasunaz ari da Linazasoro: «liburu hau eredugarria da inkomunikazio horren mekanismoak deskribatzeko orduan» (Lertxundi, 2000).

Konplota

Absurdoaren erdian, errealitatea dardarazten duen irrealitatearen erdian, beren egoeraz galdetzen dute pertsonaiek, arrazoiak, kausak bilatu nahi dituzte beren egoera arrazionalki ulertu ahal izateko. Alabaina, magikoa da liburuko kausalitatea, irrealia eta, beraz, hautemanezina. Horregatik, konplota izango da pertsonaiek beren egoera ulertzeko duten modu bakarra. Konspirazio baten menpe daudela onartzea izango da irrealitatean pertsonaiek aurkituko duten arrazoizko kausa bakarra. Arrazoibide guztiek konplotera daramate. Lehen narrazioan, hilabeteetan kriptan hertsirik dauden pertsonaien artean «pixkanaka-pixkanaka, argia egiten hasi da jendearen begietan, eta indartu egin da Konplotaren eta Komfabulazioaren teoria» (13. or.). *Bagoi bat ordokian* narrazioan argi ikusten da bide guztiek daramatela konplotaren teoriara, hura dela arrazoizko justifikazio bakarra: «Hainbat hipotesi erabili nituen, arrazoibidezkoak, neurrikoak, izen mikatz bat ekarri zutenak ondorio gisa: konplota» (28. or.). *Oinazeak orduak luze ditu* narrazioan ere etengabea da konplotaren kezka. Estrategia eta konspirazio baten biktima kontsideratzen da narratzailea: «ez al zen huraxe trikimailu zikin bat izango?» (133. or.), «hura guztia estrategia ezinago ongi taxutu bati zegokion» (138. or.), «Ana Morenaren amarruaz jabetzearekin batera» (159. or.)...

Izan ere, Linazasorok berak eraikitako konplotaren biktima dira ipuinotako pertsonaiak. Idazleak proban ipintzen ditu pertsonaiak, muturreko egoeretan, haien erreakzioak eta jokaerak aztertzeke.

Kritika

Badago kritika sozialerako tarterik liburu honetan. Gizartean nagusi diren hainbat joera zorrotz kritikatzan ditu Linazasorok, betiere hain berea duen ironia finez. Jon Kortazarrek dioenez, «Linazasorok umore beltza erabiliz gizartean hain nabarmen den simulakroaren kritika haragi bizian jarri du» (Kortazar, 2001). Azken narrazioaz ari da Kortazar simulakroaren gaineko kritika aipatzean. Izan ere, nabarmena da kritika soziala *Oinazeak orduak luze ditu* narrazioan. Idazleak berak onartu duenez, «egungo gizartearen joerak ez ditut batere gustukoak. Giza balio guztiak galtzen ari dira» (Zabala, 2000). Galera hori salatzen da ipuin hauetan, baina Linazasorok ez du uste hori salatzea idazlearen zeregina denik: «Idazlearen alderdi pribatua defenditu izan dut nik beti. Nik konpromiso bat daukat aurrena neure buruarekin eta ondoren gizartearekin» (*op. cit.*). Maila indibidualean kokatzen du Linazasorok bere zeregina: «nik ez dut funtzio publiko bat bete beharrik». Izan ere, ozenago esan zezakeen, ez argiago: «literaturak ez du mundua aldatuko». Zergatik orduan halako kritika soziala, literaturak ezer aldatuko ez badu? Ez dugu erantzun garbirik, baina badirudi kritika bezala definitu dugun hori idazlearen barne-egonezinen azaleratze bat dela. Idazleak gizartearen joeren aurrean sentitutako egonezin eta oinazearen azaleratzea.

Oinazeak orduak luze ditu narrazioak telebista-saio bat du ardatz nagusi. Bertan gertatzen denaren bidez, gizarteko hainbat eta hainbat joera salatzen dira. Hasieratik, eroskeria azaltzen da ipuinean: «bost milioi bana eman zizkiguten (...) aginduko zitzaiguna betetzeagatik» (121. or.). Diruaren truke edozer ikusi eta jasateko prest dauden ikusleak dira, beraz, ipuin honetako pertsonaiak. Diruzalekeria

behin baino gehiagotan kritikatzan da narrazioan zehar: «Negar batean banatu genituen zenduaren diruak» (122. or.).

Ikusleen eta, oro har, gizartearen pasibotasuna salatzen ditu Linazasorok, bestalde: «Palomitaz eta txokolatez eta goxokiz eta aldizkari pornografikoz horni zitzaten bitartean, ez zen haiengan errezero arriskutsurik sortuko» (187. or.).

Pribatuaren eta publikoaren arteko banaketa desagertzea ere kritikatzan da testuan, Kortazarrek adierazi bezala: «Simulakroaren eta pribatua salgai jartzeko gure ahalegin zoroen kritikak zuzen jo du dianan testu honetan» (Kortazar, 2001). Telebista-programan agertzen diren pertsonaiek bizitza pribatua izateko eskubidea galtzen dute ipuinean. Beren iragan iluna, bizitza sexuala, dena jartzen da agerian telebistaren bidez: «eta zakila belautzen artean ezkutatzan zuten, suge bekatariaren antzirudira» (130-131. or.), «Horixe da zuk nahi zenukeena (...) zure emazteak inoiz jan ez dizuna nik jan niezazun, urde aleena!» (162. or.); «Nola zekiten haiek nire kastitatearen berri? Zer zekiten hil zitzaizkidan zazpi andregaietz? (...) Zer zekiten nitaz? Eta orduan konturatu nintzen: dena» (193. or.).

Besteren oinazea espektakulu, ikuskizun bihurtzen da ipuinean. Berehala gaur egungo *reality show*-ak etorriko zaizkigu gogora: «...saiatuko gatzazkizue biziki, jakiten (...) non auskalo dagoen zazpi gonbidatu maite hauen zorigaitzo zornetua-ren maratila (...) Txaloak zaparradaka erori ziren...» (127. or.), «oinaze izugarri hura guri, teleikusleoi, mundu orori adierazi behar bazenio, zein kolore aukeratuko zenuke?». Ikusleagoak gonbidatuen oinazea eta heriotza eskatuko du, heriotza espektakulu bihurtuz: gonbidatu bati HIESa inokulatzea proposatuko dute; «Hil dezatela! Exekuta dezatela! Asesina dezatela!» (177. or.) eskatuko dute beranduago.

Errealitatea itxurakeria huts bezala aurkezten da *Oinazeak orduak luze ditu* honetan: «Ez al zen hura dena kartoi-harri huts-hutsa izango?» (165. or.), «har-maila gotikoetan zeuden elefantez mozorrotuek zein bene-benetako elefanteek...» (175. or.), «Beraz, ez zen huraxe kartoi-harri huts-hutsa besterik. Dena simulakroa» (186. or.). Argi adierazi du azken esaldi honetan: dena da simulakroa, ez dago bereizterik itxuraren eta errealitatearen artean, itxurak estalirik agertzen da benetako errealitatea. Kartoi-harrizkoa da errealitatea, faltsua; mozorroen atzean ezkutaturik dute gizakiek euren benetako izaera.

Luze joko liguke (eta ezinezkoa litzateke) Linazasororen kritika ironiko guztia hona ekartzek, aski izan bitez hemen aipatuak idazlearen ikuspuntu kritikoaren adierazgarri.

Metafikzioa

Borges eta Calvino aitatu behar ditugu hemen ostera. Idazle hauen kasuan:

El discurso metafictivo no es tanto una escapatoria o coartada mediante la cual el escritor puede rehuir de vez en cuando las obligaciones que impone el realismo tradicional; es más bien una preocupación central y una fuente de inspiración (Lodge, 1998: 306).

Linazasororen ipuin askotan metafikzioak tarte garrantzitsua hartzen du. Narratzaileak narrazioaren inguruan sortzen zaizkion kezka, galderak edo gogoetak plazaratzen ditu, hainbatetan bere testuaren kritika testuan bertan integratuz.

Sinesgarritasuna etengabeko kezka da Linazasorengan. *William Lang* ipuin laburraren amaieran galdera egiten du narratzaileak eta amaitu gabe uzten du ipuina: «Sinetsiko al dit norbaitek adierazten badut William Lang paraxutista oinaztarri baten gainean zamalka galdu zela sekula betiko?» (83. or.). «Sinesgarria al da hau guztia?» (69. or.) galdetzen du, bestalde, *4. moilan* ipuineko narratzaileak. Izan ere, sinesgarritasuna da literatura-lan batek oinarritzko duen elementuetako bat. Testuak barne-logika bat izan behar du, fantasiaren eremuan kokatuta ere sinesgarri egin behar zaio irakurleari funtzionatuko badu eta, agian ironikoki, horren inguruan galderak planteatzen ditu narratzaileak.

Komentario metafiktiboaren bidez, narrazioaren arbitrariotasuna erakutsi nahi du Linazasorok maiz, espazio eta denbora kontuetan batik bat: «Ez dakigu, era berean, zer eguraldi egiten zuen (...). Jar dezagun, beraz, egun euritsu bat zela...» (48. or.); «Zer [axola du], lekuak nola duen izena, leku guztietan tiraniaren borroek izen bera badute?» (167. or.)...

Azken finean, diskurtso metafiktiboaren bidez, narratzaileak itun bat egiten du irakurlearekin; hitzarmen bat, zeinaren bidez narrazioaren nondik-norakoak azaldu eta zehazten baitira: lekua, denbora, izenak... Zenbaitetan, idazleak narrazioaren egitura nolakoa izan den deskribatzen dio irakurleari: «...baina ez dugu orain kolpetik adieraziko zertan zetzan aldaketa bitxia; epeka emango dugu horren berri, apurka-apurka» (49. or.). Kontradikzioa badirudi ere, gure ustez, metafikzioaren bidez, sinesgarritasuna bilatzen du idazleak, irakurlea bere munduaren konplize eta era berean sortzaile egin nahi du. Hala, maiz irakurleari zuzenean zuzentzen zaio narratzailea: «irakurlea ohartuko zen...» (171. or.), «Akordatzen al zarete Armando Bonillarekin?» (189. or.), «Eta, orain, irakurle, atera itzazu zeuk kontuak. Nik nahikoa esan dut» (191. or.). Irakurlearen parte-hartze aktiboa bilatzen du metafikzioaren bidez Linazasorok, nolabait irakurlea bere fikzioaren parte bihurtzea.

Patua

Ipuin hauetako pertsonaiak kondenaturik daude hasieratik, eta gehienetan, heriotza eta oinazea dira beren kondenak. Konspirazioaren barruan, absurdoaren barruan, beren patua onartzen dute eta ez dute inolako inizatibarik hartzen hari aurre egiteko. Heriotza beren patua dela onartzen dute, ez daukatela ihesbiderik: «Ez nioke patuari saihezbiderik aurkituko» (18. or.) dio *Irratia piztu dut* ipuinak; *Marius Lippi*-n, berriz, patuaren bidez zeharka egiten zaio erreferentzia pertsonaiaren heriotza ekidinezinari: «Esaldi terrible bat entzun ahal izan genuen orduan, kirolari haren patuari buruz zalantza biderik uzten ez zuena» (22. or.); salbazio-bide guztiak ukatzen dira *Ororen oroz, deus ez* narrazioan: «Ez da ezer munduan erre-dimi gaitzakeenik. Galduak jai, galduak hiltzeko» (104. or.). Heriotzaren aurrean etsipenez jokatzen du *Oinazeak orduak luze ditu*-ko emakumeak: «zer egin zezakeen urkamendia zain zeukan emakume koitaduak?» (160. or.).

Heriotza, sufrimendua, oinazea, patuaren parte direla onartzearekin batera, erabateko pasibotasunean sartzen dira pertsonaiak, ez dute indarrrik ateratzen egoerari aurre egiteko. Ihesbiderik gabeko kondena ezarri zaie eta bide guztiek heriotzara daramate.

T.

Letra bakarra, T., erabiltzen du maiz Linazasorok bere ipuinen kokalekua zehazteko. Zer ote da, baina, T. hiria? Felipe Juaristik (2001) dioenez, «T. hiria edozein hiri izan zitekeen, baita K. hiria ere, baina ez da edozein hiri, ezta K. hiria ere. T. hiria T. hiria da, aparta eta berezia...» (Juaristi, 2001). Saihestezina zaigu T. hiria Tolosarekin lotzea (K.L. Karlos Linazasororekin lotzea ekidinezin zaigun bezala), hala ere, Juaristik esan bezala, edozein hiri izan zitekeen T. eta hala da neurri batean. Izan ere, Linazasororen leku-denborak arbitrariotasunaren eta zehaztugabetasunaren artean kokatzen dira. Idazleak berak esan zuen *Ipuin erotiko*-etako espazio eta denboraz: «Batere xehetasunik ez da agertzen. Ez diot [Serkausia] Tolosakoa dela. Oso minimalista da, ez dago denbora edo leku konkretuen aipamenik» (Aldalur, 2001).

Espazio itxiak dira hainbatetan Linazasororen ipuinetan agertzen direnak. Beroaren bidez egiten duen bezala, espazio itxien bidez ere itomen-sentsazioa eragin nahi dio irakurleari, klaustrofobia antzeko zerbait eragin. Hala, kripta batean kokatzen du lehen narrazioa; *Bagoi bat ordokian* bagoi batean kokatzen da, non «leihatilak eta ateak hermetikoki itxita zeuden» (31. or.); irteerarik gabeko patio batean gertatzen da *Oinazeak orduak luze ditu* eta abar.

Kontrako joera agertzen dute beste zenbait ipuinek. Narrazio zenbaitetan, espazio guztiz irekiak, amaigabeak agertzen dira, infinituaren adierazgarri, nolabait. Hala, *Bagoi bat ordokian* narrazioan bagoia (espazio itxia) espazio irekian, amaigabean (ordokian) kokatzen da. Bestalde, basamortuak ere infinituaren ideia nabarmentzen du *Basamortu antzuetatik* ipuinean.

Hala ere, espazio publikoak dira gehienetan ipuin hauen kokaleku Ana Urkizak (2001) *Ipuin erotikoak* liburuaz nabarmendu zuen bezala: «Linazasorok deskribatzen dituen lekuak (...) espazio publikoak dira, urbanoak, eta bere obsesioak egunerokotasunean txertatzeko balio dute» (Urkiza, 2001). *Ez balego beste mundurik* liburuan ere publikoak dira espazioak: trena, futbol-estadioa, zezen-plaza, ospitaleko itxaron-gela, «plazan, abenidetan, hipermerkatuetan» (39. or.), auto-kontzesionarioa... Gutxitan agertzen dira etxe barruan pertsonaiak. *Salbuespena 4. moilan* genuke, non etxean hasten baita pertsonaiaren metamorfosia. Ipuin berean espazio publikoen eta pribatuen arteko kontrastea azaltzen da: «Lasai sentitzen zen han, kalean ez bezala» (77. or.). Pertsonaiei espazio publikora irtetea, bestekiko harremanetan sortzen zaizkie ezinegonak eta katastrofe handienak.

Topikoak

Gizartean nagusi diren topiko handienak agertzen dira liburu honetan, beti bezala, umore finez eta ironia korrosiboz.

Elementu folklorikoak, kasu, behin eta berriro agertzen dira testuan: «Sikiera gure artean bertsolariren bat egongo balitz!» (11. or.); «Sardana edo arin-arina. Beti folklorikoa, ohitura zaharrei atxikia» (116. or.); «Aurretik, bertsolariak eta suziri ekologikoak eta herri kirolak izan ziren, eta trikitilariak» (123. or.)...

Bestalde, errepikatuaren errepikatuz esanahia ia galdua duten esaldiak, topikoak maiz ageri dira testuan: «Baina, drogak, jakina da, hil egiten du» (188. or.); «Eta hemen euskaraz ez dakienak zapaldu egiten gaitu, eta abar eta abar» (101). Horrez gain, beste hainbat topiko aurkituko ditugu, ironikoki: belaunetarainoko zakila duen Abdul Ib Abraham Josef Celorrio, edo emakume buruarinak: «Lehena emakume kaskarina zen. Nobioa ez omen zitzaion ezkontegunean aldare aurrean azaldu» (128)... Liburu honetan ez ezik, Linazasororen obra osoan ere konstantea da topikoen presentzia. *Zer gerta ere* ipuinaz zioen Juan Luis Zabalak (1994): «topiko askoren topalekua iruditu zait, eta liburuaren nahasgarri, aberasgarri bainoago» (Zabala, 1994).

Umorea

Last but not least esaten dute ingelesek eta halaxe gertatzen da hitz honekin, izan ere, umorea da liburu honetako tonua hasieratik bukaerara. Liburuaren aurkezpenean Lertxundik (2000) esan zuenez «aspaldi ez nituen halako barre-algarak bota liburu bat irakurtzen». Itxura batean kontraesana irudi luke, heriotzaz, oinazeaz, sufrimenduaz eta absurdoaz ari den liburu baten tonua umorezkoa izateak, baina halakoxea da *Ez balego beste mundurik*. Honela mintzatu da oriotarra Kafkaren inguruan, berriki: «Kafka klabe umoretsuan irakurtzeko aukeraz ere mintzatu dira hainbat autore, Kundera azkenetakoa. Zaila dirudi goiko ipuin laburra hala irakurtzea, Kafkaren irakurketa seriora behartu baikaitu pragatarrari buruzko literatur hagiografiak» (Lertxundi, 2001: 60). Agian horixe egon liteke Linazasororen obraren sakonean: Kafka (eta beste zenbaiten) berrirakurketa bat, klabe umoretsuan egindako berrirakurketa bat. Umoreak ez dio, nolani ere, sakontasunik kentzen obrari; Linazasorok erakusten digu umorezko klabetik berdin-berdin hitz egin dezakegula oinazeaz, heriotzaz eta absurdoaz. Distantzia-ezartze bat da azken finean umorea, etsipenaren eta bizitza zentzugabearen aurrean geratzen den irtenbidea. Liburu osoan gainezka egiten du umoreak eta hainbat teknika erabiltzen ditu oinazea umorera lerratzeko: hitz-jokoak, esperpentoa, exajerazioa, topikoak... Gairik serioena umorez tratatzen da liburuan:

– Gauza orok du bere iruntzia, bere ifrentzua, bere alderdi ezkutu edo sibilinoa. Gizaki oro bi gizaki gara.

– Ni, adibidez, gizon eta emakume naiz, sin ir más lejos.

Hermafrodita, beraz. Badaukagu serie bat hermafroditentzat propio egina. Auto hibridoa: errepiderako nahiz mendirako. *Fifty-fifty* (102. or.).

Liburuko pertsonaiek ere, heriotzaren eta oinazearen aurrean umorea dute ihesbide: *Errebisiorik egin gabe-n*, itxarongelako agurea hariaren biktima denean, «barre egiten zuen umeak» (46. or.); *demagun kripta bat* narrazioan, bestalde, agurea hil ostean «irribarre egiten dute ezkutuan, egoera, ongi pentsatuta, irrigarria baita zeharo» (10. or.). Liburu honetan, umorea da heriotza desafiatu dezakeen bakarra.

Oso umore berezia da Linazasororena, beltza, zaila, garratza, Jon Kortazarrek azaldu bezala: «Umore pertsonala du, agian mingotsa, arin ulertzekoa ez dena, eta konplizitate-puntu bat eskatzen dio irakurleari». André Breton eta surrealismoaren eragina aipa genezake ostera ere. Idazleak liburuan bertan esan duenez: «Barre egin nion neure umore bretonianoari». Makabroa da sarritan Linazasororen umorea, gaiztoa ere bai:

Zer oroit dezaket nire iraganaz? (...) Tanzanian, haurtxo siamdarrak erdibizetik atera nuela ogibide nahikoa itxuroso bat? Elikadura-mafia baten buru izatera iritsi nintzela Etiopian, gosete garai latz izugarrian? Organo-trafikatzailerak izan nintzela Somalian eta Ugandan? (179. or.).

Teknika bat bainoago, bizitzaren aurrean idazleak hartzen duen jarrera da umorea, ironiarekin batera, liburu honetan.

Erreferentzia bibliografikoak

- Agirre, J. (2000): "Literatura salbade izan dut bolada luze batez", *Gara* 2000-10-31.
- Alazraki, J. (1994): *Hacia Cortázar: aproximaciones a su obra*, Anthropos, Bartzelona.
- Aldalur, G. (2001): "Nire ipuinak oso gordinak dira", *Ortzadar (Deia)*, 2001-06-08.
- Atxaga, B. (1998): *Groenlandiako lezioa*, Erein, Donostia.
- Carrere, J. (2001): "Karlos Linazasoro", *Gara (Mugalari)* 2001-11-17.
- Etxeberria, H. (2002): *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*, Alberdania, Irun.
- Gutierrez, I. (2000): *90eko hamarkadako narratiba berria: literatur kritika*, Labayru-BBK, Bilbao.
- Gutiérrez, M. (1996): "Borges, Calvino: temporalidad y paradoja", in *Borges, Calvino, la literatura*, Poitiers-eko Unibertsitatea-Fundamentos, Madril.
- Juaristi, F. (2001): "Zaindariaren erroak", *El Diario Vasco* 2001-06-09.
- Kafka, F. (2000): *Metamorfosis*, Rufino Iraolaren itzulpena, Hiria, Alegia.
- Kortazar, J. (2001): "Ez balego beste mundurik", *El País* 2001-05-27.
- Lagos, R. (1986): *Jorge Luis Borges 1923-1980: Laberintos del espíritu, interjecciones del cuerpo*, Llibres del Mall, Sant Boi de Llobregat (Bartzelona).
- Lertxundi, A. (2000): "Hiztegi-gida laburra Karlos Linazasororen eremuetan ibiltzeko", *Ez balego beste mundurik* liburuaren aurkezpen-hitzaldia, argitaragabea.
- , (2001): *Mentura dugun artean*, Alberdania, Irun.
- Lodge, D. (1998) *El arte de la ficción*, [3. arg.: 1999], Península, Bartzelona.
- Markuleta, G. (1992): "Hitzaurrea", in J. Kortazar, *Oktaedroa*, Eusko Jaurlaritzaren EIZIE-lbaizabal, Euba.
- Padron, J.L. (2001): "Gurea baino absurdoagoak badirelako", *Zabalik* 2001-09-08.
- Rojo, J. (2001): "Mundu absurdoa", *El Correo* 2001-07-25.
- Toriano, C. & Zonana, V.: "De los destinos cruzados: Borges, Si una noche y El castillo", in *Borges, Calvino, la literatura*, Poitiers-eko Unibertsitatea-Fundamentos, Madril.
- Urkiza, A. (2001): "Oroimenak sufriarazi egiten digu", *Euskaldunon Egunkaria* (Begia), 2001-06-30.
- Zabala, J.L. (1994): "Alderdirik laiotzengan", *Euskaldunon Egunkaria* 1994-11-10.
- , (2000): "Literaturak ez du mundua aldatuko", *Euskaldunon Egunkaria* 2000-12-23.